



# MIGEL MOIUA MENDI eta JUANITO GALDOS MIGELENA

## Bi karreteroren gorabeherak

**San Prudentziotik Udanara bittarteko para-  
jjak — baso, erreka-harro, burdi-bide, erripa,  
malkar eta sasi-artiok — ondo baño hobeto  
ezaguketia tokau xate Migeleri eta Juanitori,  
beste lagun batzuekin batera, kuadrillan,**

**makiñatxo bat urtian karretero lanian gogor  
jardun biharra izan ebein eta. Bittarte horreta-  
ko taberna guztiak be bai, jakiña, egun osuan  
lana egin ondoren, illunkarako tragotxua  
“sagraua” izaten zan eta.**

### -Zein izaten zan zuen lana?

Basuak botaten ziranian, bertan egu-  
rra burdixetara eskuz jaso eta kamiño  
bazterretan egozen kargaderotaraiño  
karriau bihar izaten geben. Handik zerra-  
ra kamioian eruaten zittuain.

### -Eta basua bota...

Guk egur-karriua besterik ezkeben  
egitten; basua botaten, oraintxe letxe,  
beste batzuk ibiltten ziran.

### -Zenbaitten artian egitten zebein?

Kuadrillaka ibiltten giñan, aldiko  
bost-sei karretero bakoitza bere idi-  
pariarekin. Guk batez be Zubillaga  
aldian jarduten geben, baiña Murgixan,  
Larrañan, Olabartan eta horreitan be  
baziran kuadrillak.

### -Zeiñentzako?

Normalian zerratarako. Oñatin bazi-  
ran garai haretan dozena bat zerra edo.  
Baiña beti be, baso-jabiak be diar egitten  
oskuen.

### -Zela egiten zebein tratua?

Batzutan tantora izaten zan; beste  
batzutan jorñalian; guk itxi gotzianian,  
500 pezeta zan eguneko jorñala. Tantora  
egindda akaso gehitxuago ataraten



*Migel Moiu eta Juanito Galdos Baserrita-  
rren alkartian.*

geben, baiña gastuak be etziran makalak  
izaten.

### -Ze gastu zeukain ba?

Bateko idixak eta besteko burdixa,  
beti eguen zerbait. Idixak, behin 5-6 urte  
egin ezkerro, aldatu egin bihar izaten  
ziran, ondo-ondo fanda 6 bat urte irauten  
ebein; gañera ixa hamabostero edo

perrau egin bihar izaten ziran.

### -Zenbat perratzaille ziran orduan?

Bakarra, Patrukekaleko Basilio, eta  
orduan Oñatin 200 bat idi pare egongo  
ziran. Sarrittan goizeko lauretarako etorri  
bihar txandia hartzera. Akordaitten naiz  
ni -dixo Juanitok- domeka baten, etxera  
fan eta goizeko ordubittan hartu idixak  
eta plazan gora han fan nitzala.

### -Esan dozue behin 5-6 urte egin ezkerro, idixak aldatu biharra izaten zala...

Bai, barrixak ekarri bihar. Truke egi-  
tten geben, guk zaharrak eruan eta barri-  
xak ekarri; baiña zaharrak buruan jo eta  
hil egitten zittuain eta barrixak zerbaitt  
pagau bihar.

### -Nundik ekarten ziran idixok?

Guk Bitorixan edo, erosten gittuan  
jeneralian, baiña ekarri Galiziatik ekarten  
zittuain baguekadak ferixa egunerako.

### -Orduan be hillero egingo ziran ferixak...

Bai, Oñatin, oraintxe letxe, hillaren  
lehenengo ebaikotzian; Mondraguera  
ebaikotzetan be sari faten giñan. Baiña  
Bitorixan aurreko egunian izaten zanez



**Arrizabalaga**  
AROZTEGIA

Berezano Etxaldea  
Tfnoa. 78 14 64  
OÑATI

**PAKITA**  
HALTZARIAK



Euskadi Etorbidea, 3  
Tfnoa. 78 02 21  
OÑATI

*Maibi*  
*Etxeko Etxungintza*

Mendiko kalea, 2 OÑATI Tfnoa: 78 14 80



elijixa gehixago egoten zan.

**-Eta han egingo zittuain tratuok...**

Bai, batzutan ikusi, beste batzutan erosi. Norberak bihar ez baeben be, bes-tiak bihar izaten eben eta batek baiño bik hobeto ikusten daueilla eta sarri faten giñan. Gero, pagaitteko orduan be testigua eruaten zan; eskuan pagaitten zan orduan, ez eguen taluerik eta horrelakorik eta diru mordua eruaten geben aldian.

**-Berihala pagau bihar izaten zebein?**

Ez, bederatzai egunera. Kejaren bat izan ezkeru, bederatzaiurrenien agertu bihar zan; handik aurrera, kitto, hamabi-garren egunian alperra zan kejaka fatia.

**-Ferixa eguna jai hartzen zebein, eta lanegunak zelakuak ziran?**

Goizetik gabera basuan. Berezaulik Zubillagara 8retarako fateko, 5ak aldian jaiki, idixak gobernau, gertatu eta biaje, zazpirak laurden gutxiagotan plazan behera. Zortzirak ingururako Zubillagan izaten giñan danok eta basorako bidian jarten giñan.

**-Eta eguardiko jatordua?**


"Hotel-pakete". Aldian eruaten geben ogixa eta urdaixa, txorixo muturren bat edo fileteren bat...

**-Ez eguen lapikorik?**

Jeneralian basuan egitten geben bazkari-legiori eta jan hotza izaten zan, "rantxua". Batzutan, behekaldian edo bagebintzen, babak eta jaten gittuan Matietxen edo gurian (Migelenian); eta orduan gustora, ze, bazkari sikuarekin be pasaitten dozu 4-5 egun, baiña segidan asperketan zara.

**-Eta idixak, baru?**

Ez hareiri be eguardixan emuten gosten. Gabian eguneroko lana izaten zan hurrengo egunerako idixendako



*Idi pare honen aurrekaldian daguena ezta Juanito ezta Migel be, baiña Aiako karretero honen antzera ibiltten ziran eurak be.*

bedar zakua gertaketia; burdixan hartu eta eruaten geben eta bazkalorduan gu harri edo egurren baten gañian bazkai-tten eta aldamenian idixak bedar jaten.

**-Eta bazkalostekua?**

Nunbaitten siesta pittin bat egin eta atzera idixak lotu eta lanera, illunkarara arte. Illunkaran, berriz, prisarik ez: tabernan tragua hartu, eguerdixan sobrautako urdai pittin bat jan, zigarrua erre eta tran-kil. Baiña basuan kristonak egindda askotan.

**-Zeuek be etziñain makalak!**

Ez horixe, geu be ez eta idixak be ez. Askotan, negu partian, goizetan illunetan basuan aurrera linterna kaskar batekin eta potzu baten blaust! hankia sartu, eta egon zatez ilunkarara arte bustitta! Edo eurixa goixan behian dala basuan behera eta burdixa itzuli. Erreka-harruak be etziran ederrak izaten. Hareik ziran ibillerak hareik! Pentsaitten jarri personiak egin zeikienik guk egitten gittuanak eta sinistu be ez.

**-Oñetaketan be etzan oraingo konturik...**

Abarkak, gomazko abarkak eta kitto!

**-Domekia kenduta, beste guztiak lanegunak...**

Biharko! astelehenetik zapatura; Dana dala, batzutan oso eguraldi txar-arekin eta, ezin fan izaten giñan basora; beste batzutan, etxian be lanak egoten ziran: bedarrak, garixa...

**-Eta domeketan?**

Hamaietako mezetara eta gero Txar-



*Idixak perraitteko txandia hartzera gabeko 10etan etorritta lo egindda nago ni Santamariñan, eta artian beste bat aurretik!*



**Cartonajes Arregui, S. A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Apartatua. OÑATI

**VRZELAI  
DENDA**

Kale Barria, 26  
OÑATI



*rridunanera. Han egitten gittuan asteko planak, hurrengo egunian nora fan... Eta domeka arratsaldia etxian; gaiñera orduan be askotan suertaitten zan lanen bat, burdixa aldatu biharra eta horrelak.*

**-Gustoko izan dozue lan hau?**

Jarritta geuntzen hartara, astua makillara letxe, ezkiñan geu be makalak!

**-Dana lana, dana lana... erromerixak be izango ziran ba?**

Bai, eromerixak leku askotan. Ezkondu aurrekuak dira erromerixak, gero ezkondukituan kitto erromerixia. Orduan gauzarik haundixena erromerixatik neskiari etxera lagunketia izaten zan. Lagundu bakarrik eh!

**-Hori da guk eztakiguna, orduan be...**

Hara! biderik be ez eguen, senda zatarrak, bata aurretik eta bestia atzetik, bakarrik ez gaiñera, kuadrillan, eta etxe ondora heltzen ziranian, di-da barrura. Helduta dantza egittia be prohibihuta eguen.

**-Noizko kontuak dira horreik?**

1934-35ekuak, hortxe gerra-aurtxuan.

**-Pulpittotik esaten ebein ala zer?**

Pulpittotik segidan jarduten ebein esaten, eten be egin barik, baiña gero egitten zittuain neskak hermandadetik atara.

**-Bota egitten zittuain?**

Bai, orduan be baegozen neska zahar batzuk kriston medaillia lepotik behera ebaltzen ebeñiak, jefe egitten ebeñiak eta hareik bijilaitten ebein eskiña danetan zer pasaitten zan. Gaur balitza, gaur!

**-Nola ikusten dozue euskaria?**

Euskaria, lehen ondo eta orain hobeto; orain Araban be ikasten, leku danian ikasten; badoia aurrera.

**-Zuen denboran ez eguen halakorik... Zela jiraitten ziñain Bitorrixako ferixan eta...?**

Bitorrixako ferixan inguru honetako jente asko ibiltten zan; tratantiak be gehixenak hemen ingurukuak ziran eta euskaria entzuten zan. Dana dala, biharra eguenian erderaz egin bihar trikili-trokolo!

Begira zer pasau xakun behin: 7 lagun tabernara fan giñan saldia hartzera eta esan gotzan gizonari: "saca 7 caldos" eta 7 tabako-pakete ekarri oskun. Geure artian esan geben "baiña nora etorri gaitz gu!"

**G**anauak be batzuk oso fiñak, beste batzuk nagixak galantak izaten ziran. Ondo temo-suak be bai batzuk.

**-Noiz itxi zotzain karreterotzaiari?**


Juanitok 64 inguruan, ezkondu zanian, *Piletan* hasi zan eta. Bestiok be laister itxi gotzan. Ordurako lana be gutxiketana hasitta eguen kamioiak basuan ibiltten hasitta egozen eta. Lana lehenago gutxittu balitz, hoba!

**-Gogorra egingo xatzuen ba fabrikako lana...**

Ez egizue pentsau, neri bai -dixo Juanitok-. Nik fabrikan 8 egun pasau eta kontua eskatu neben; eta baeguen orduan bilbotar bat, Barañano, eta esan nontan: "Galdos, entzun, oraindiok astebete doiazu lanian eta itxoñin pittin baten, gero be izango dozu horretarako astixa". Eta begira, gaur arte, 28 urte egin dittut.

Orduan ez geuntzen sirenapeian ohittuta, sirenia entzun eta zetarako dok hori? bokadillua egitteko; guk geuk gura gebenian egitten ohittua geuntzen.

Ni, berriz -Migelek- *Loiolan* hasi nintzan, baiña karretero hasi baiña lehenago be 4 urtian ibillita nenguen fabrikan. Fabrikan ekin giñanian ikusi geben guk diru apur bat! Orduan ez egoen "res-tarik" egin biharrik .



*Migel eta Juanito hainbeste urtian ebal bihar izan ebein uzatarrixaren azpizan..*

**GUZTIZ-EDER**  
 Arantzazu Txintxurreta  
 Estetika eta masajea  
 Bio-Col tratamenduak  
 Etxaluze Etxea. Kale Barria, 54-1º F  
 Tfnoa: 78 01 46 OÑATI

**VGARTE PENTSVAK**  
 AITOR UGARTE LIZARRALDE  
 Pentsuak • Ongarriak • Haziak  
 Irinak eta deribatuak  
 Fitosanitario produktuak  
 Denda: Kale Barria, 2 Tfnoa: 78 18 09 - 78 03 04  
 Biltegia: Aozaraza, 2 Tfnoa: 78 18 09  
 OÑATI